

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**274/2018 Foru Agindua, uztailaren 3koa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritzako hondakinak erretzeari buruzko araudia, eta lehengo araudia indargabetzea**

Martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, honako hau dio 3.3 artikuluan: “Mendirako eta gaur egungo edo balizko lurzoru eta landare estaldurak kontserbatzeko balizko arrisku objektiboa den aldetik, mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailari dagokio mota guztietako landa lurretan sua erabiltzeari buruzko kontrola, hori erabiltzeko aurreko administrazio baimena izan beharko dela”.

Artikulu hori oinarri hartuz, abenduaren 3ko 558/2012 Foru Aginduaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritzako hondakinak erretzeari buruzko araudia onartu zen.

Araudi hori ezartzeko, kontuan hartu zen beharrezkoa zela nekazaritzako hondakinak erretzeko araudi bat, erreketak baimentzeko izapideak sinpletuz jardunen kontrol handiagoa lortu eta praktika horretatik sortutako baso suteak gutxitzea ekarriko zuena, mahatsondoen inausketa hondarrak (aihenak) edo olibondoan inausketa hondarrak erretzeko prozedura sinpletuagoa jarrita, gainerako hondakinatarako baino. Prozedura hori, lortutako emaitza onak kontuan hartuta, urriaren 6ko 430/2014 Foru Aginduaren bidez nekazaritzako hondakin guztietara hedatu zen, lasto fardoan piloetara izan ezik, eta irailaren 30eko 228/2015 Foru Aginduaren bidez, horietara ere bai.

Kontuan izanik igarotako denbora, eta horretan onartutako Europako araudiak nekazaritza jardun horren erabateko kontrola eskatzen duela, gero eta selektiboagoa eta ingurumenarekiko begirunetsuagoa izan behar baitu, arretatsuagoa NPB berriaren baldintza eta eskakizun guztiak betetzeko, gaur egun dagoen arauen sakabanaketa ere kontuan izanik, egokiagotzat jotzen da eguneratutako araudi guztia ezartzen duen foru agindu berri bat onartzea eta aurrekoa indargabetzea, ezen ez hasierako foru agindua hirugarren aldiz aldatzea, haren aplikazioan hutsegiteak ekar baititzake, eta nahasmena haren hartzaileengan.

Burutu dira Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onartzen baitira xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikako jarraibideak, ezarritako izapide guztiak.

Foru agindu hau Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordera bidali ondoren, batzordeak irizpena eman du 2018ko ekainaren 22an, zeinaren ondorioak onartzen baitira.

Aginduzko txostenak ikusirik eta Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordea entzunda, horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritzako hondakinak erretzeari buruzko araudia, foru agindu honen eranskinean jasotzen dena.

Bigarrena. Salbuespenez, aurten, modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko baimena eskatzeko epea, eranskinaren 9.2 artikuluan aurrikusten dena, 2018ko ekainaren 30an bukatuko da; epearen bukaera 2018ko irailaren 1a izango da erreketaren ostean ezarri nahi den laborantza ureztatua baldin bada.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetzea, eta bereziki Nekazaritza Saileko diputatuaren foru agindu hauek: 558/2012 Foru Agindua, abenduaren 3koa; 430/2014 Foru Agindua, urriarren 6koa, eta 228/2015 Foru Agindua, irailaren 30ekoa.

Laugarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko uztailaren 3a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

*EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO*

*Nekazaritza zuzendaria*

*MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE*

## ERANSKINA

### I. KAPITULUA

Nekazaritzako hondakinak erretzeko arau orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Foru agindu honen xedea da mota guztietako landa lurretako nekazaritza hondakinen erretze lanak arautzea, barne direlarik uzta hondarrak, mahatsondo edo olibondoen inausketa hondarrak, lasto fardoak eta nekazaritzako beste landare hondakinak, horren barruan hartuz modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzea.

Ez ditu arautzen nekazaritza lurretako gainerako erreketa estentsiboak, ez eta baso hondakinen erreketak ere.

#### 2. artikulua. Murrizketak eta debekuak

2.1. Erabat debekaturik dago mota guztietako landa lurretan nekazaritzako hondakinak erretzea baldin eta mendien arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiaren sailak ez badu horretarako baimena eman, foru agindu honetan adierazitako prozedura eta baldintzak betez.

2.2. Ez da nekazaritzako hondakinak erretzeko baimenik emango 11/2007 Foru Arauak, mendienak, 65. artikuluan xedatutakoaren arabera eguraldiagatik edo arauz justifikatutako beste arrazoi batzuegatik landa ingurunean aldi baterako sua egitea debekatu den aldietan.

2.3. Euskal Autonomia Erkidegoan baldintzak aplikatzeari buruzko legerian ezarritakoa betez, belarki laboreen uzta hondarrak eta zurezko laboreen inausketa hondarrak deuseztatzea indarrean dauden arauak betez egin beharko da beti.

2.4. Erreketa ez da hasiko egunsentia baino lehen, eta, lasto piloak erretzean izan ezik, egun bereko iluntzea baino ordubete lehenago amaituta egon beharko da, Institutu Geografiko Nazionalak argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofizialari jarraituz:

<http://astronomia.ign.es/hora-salidas-y-puestas-de-sol>

Eta, orokorrean, egunaren lehen orduan hasiko da erretzen.

2.5. Debekaturik dago larunbatetan eta jaiegunetan erretze lanak egitea.

2.6. Baimendutako erretze lanak inoiz ez dira egingo haize gogorra edo hegoaldeko haizea (solano, sargoria edo Gaztela-hegoa) dagoen egunetan, ezta tenperatura altua dagoenean edo sutea pizteko arriskua dakarten beste egoera batzuk direnean ere.

2.7. Behin erretze lanak hasita, eguraldi aldaketagatik edo beste arriskuren batengatik lanak gelditzea komeni bada, sua berehala itzaliko da.

2.8. Debekaturik dago nekazaritzako hondakinak (uzta hondarrak, aihenak eta bestelako landare hondakinak) pilatzea zuhaitzetatik edo berezko landaretza duten ezponda, palaxu edo ibar basoetatik 10 metro baino gutxiagora.

2.9. Mendien arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiaren sailak, eguraldiagatik edo beste arrazoi justifikatu batzuegatik, landa ingurunean sua egitea debeka dezake aldi baterako, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, 65. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aldi horietan, baliogabetuta geratuko dira foru agindu honetaz baliatuz emandako baimenak.

### **3. artikulua. Segurtasun neurriak. Erantzukizunak**

3.1. Erretze lana baimendu ondoren eta hari ekin baino lehen, jardun eremuaren arduraren duen basozainaren adostasun espresua izan beharko da. Basozainak, ingurumen baldintzen arabera, geroratu edo atzeratu ahal izango du erreketak. Baita ere, Miñoi Zerbitzuari abisatu beharko zaio (telefonoa: 945 18 18 18).

Erretze lana egiten ari den bitartean, une orotan telefono mugikorra eduki beharko da eskura. Ustekabeko edozein gorabehera gertatzekotan, berehala deitu beharko da 112 zenbakira edo Miñoien Koordinazio Zentrora (945 18 18 18).

3.2. Basozainek, segurtasun arrazoiak direla eta, eguerdirako baimendu diren erretze lanak eten ahal izango dituzte, eta zenbait erretze lanetarako ordutegi jakin bat ezar dezakete, gomen-dagarria bada haien ezaugarriengatik (lekua, arriskua edo baldintzak).

3.3. Erretze lanak egiten diren bitartean, kontu handienaz jokatu beharko da, nahiko langile eta suteen kontrako material egokia edukita. Suaren bilakaera zaindu beharko da haren hedapena ekiditeko, eta ez da bertatik joaterik izango sua erabat itzali arte.

3.4. Inguruetan zuhaitzirik badago, jarri beharreko arretak zorrotzagoak izango dira.

3.5. Uzta hondarrak, aihenak edo bestelako landare hondakinak, salbu eta modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak, lur elkorretan edo ahalik eta landare gutxien dutenetan pilatuko dira, leku bizigabeen ondoan. Piloak berezko edo landatutako landaretza dagoen lekuetatik egokiro bakartuta egongo dira, sua haietara heltzea ekiditeko.

3.6. Ezingo da ipini lasto fardoen pilorik zuhaitz multzoetatik 50 metro baino gutxiagora. Banda perimetral bat landu beharko da, gutxienez lasto fardoen piloaren altueraren bi halako zabalera duena. Horretarako, 10 egun izango dira, fardoak pilatzen hasten direnetik edo, hala badagokio, kasuan kasuko lurzatian uzta biltzen denetik kontaktzen hasita.

3.7. Lasto fardoak pilatzerakoan, errespetatu beharko da Foru Sareko errepideen eraikuntza lerroa, 20/1990 Foru Arauak, errepideenak, 2. artikuluan ezarritakoa. Lerro hori, errepide arruntetan, galtzadaren kanpoko ertzetik 25 metrora ezarrita dago; autobide eta autobietan, galtzadaren kanpoko ertzetik 50 metrora; eta herrietako saihebidetan, galtzadaren kanpoko ertzetik 100 metrora. Halaber, lasto piloek errespetatu beharko dute burdinbideen babes zona, zapalunearen kanpoko ertzetatik 70 metrora dauden bi lerro paralelok mugatua.

3.8. Komunikazio bideetatik gertu erretze lanak egiten badira, kea haietara iritsi eta ibilgai-luek istripuak izateko dagoen arriskua kontuan izanik, debekatuta dago erretze lanak egitea segurtasun bandetan haizeak galtzada aldera jotzen duenean. Segurtasun banda hori, autobidetan, autobietan, lehentasunezko intereseko sareko errepideetan eta oinarrizko sareko errepideetan, zapalunearen kanpoko ertzetik 100 metrora egongo da; eskualdeko, tokiko eta auzoko errepideetan, aldiz, zapalunearen kanpoko ertzetik 50 metrora. Halaber, debekatzen da erretze lanak egitea babes zonetan haizeak burdinbide aldera jotzen duenean. Babes zona horiek 70 metro zabal izango dira, zapalunearen kanpoko ertzetik kontaktuta.

3.9. Baimenaren titularraren ardura izango da araudi hau eta foru agintaritzea eskudunak xedatutako gainerako antolaketa eta funtzionamendu jarraibideak betetzea. Era berean, erretze lana kontrolatzeko ardura izango du eta, sua hedatuz gero, horrek eragindako kalteen erantzule izango da.

3.10. Ezbeharrez arekak, ezpondak edo basoaldeak erretzekotan, edo Mendi Zerbitzuko langileek emandako jarraibideak ez betetzeagatik edozein kalte gertatzekotan, pertsona edo erakunde eskatzailea izango da horren guztiaren erantzule bakarra.

## II. KAPITULUA

### Erretze lanetarako baimena eskatzeko prozedura

#### 4. artikulua. Eskaerak

4.1 Edozein motatako landa lurretan mota guztietako nekazaritza hondakinak erretzeko baimen eskaerak egiteko, lasto fardoen piloak eta modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko izan ezik, bete beharko da I. eranskinean ageri den eredu normalizatuaren arabera inprimaki bat, kopia papera duena. Inprimaki hori eskatzaileari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan aurkeztu ahal izango da, edo zuzenean zonako basozainari. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

4.2. Mota guztietako landa lurretan lasto fardoen piloak erretzeko baimen eskaerak egiteko, idazkia aurkeztu beharko zaio mendien arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiaren sailari, II. eranskinean ageri den eredu normalizatua erabiliz. Eredu hori baliaduna izango da landa lurretan egiten diren eta foru agindu honetan jasotzen ez diren gainerako erretze lanetarako ere. Horien barruan sartzen dira nekazaritza lurretako erreketak estentsiboak, salbu eta modu estentsiboan landutako zerealen hondarren erreketak eta baso hondakinen erreketak.

#### 5. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Mahatsondo eta olibondoen inausketeta hondarrak, abenduaren 15etik martxoaren 15era bitarteko aldiaren erdia ahal izango dira. Erre baino lehenago eskatu eta lortu beharko da baimena.

#### 6. artikulua. Baimenak. Balioa

6.1. Basozaintzak baimenduko du (edo ez) 4.1 artikuluan aurreikusitako erreketak eskaera, kopia papera duen eskaera inprimakia izenpetuz. Inprimaki horren jatorrizko alea eskatzailearen eskuetan geratuko da.

6.2. Mendi Zerbitzuak baimenduko du (edo ez) 4.2 artikuluan aurreikusitako erreketak eskaera.

6.3. Baimen hauek 30 eguneko balioaldia dute, ematen diren egunetik kontatuta, laborantza estentsiboko hondakinak erretzeko izan ezik, horien iraunaldia III. kapituluan ageri dena baita.

6.4. Foru agindu honen arabera ematen diren baimen orokorrak independenteak dira aplikatzekoak diren beste araudi batzuetan eskatzen direnekiko.

#### 7. artikulua. Errekurtsoak

Edozein motatako erreketak baimentzeko edo ukatzeko egintzak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, horri buruzko araudiaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsioa jartzeko aukera eragotzi gabe.

## III. KAPITULUA

### Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko berariazko arauak

#### 8. artikulua. Eskaeraren gaia diren eremuen betebeharrak

8.1. Erretzeko eskaeraren gaia diren eremuak azken hiru urteetako (eskaera egiten den urtea barne) edozeinetan landuta egon beharko dira zereala ez den labore batekin.

Hala ere, erre ondoren ezarri nahi den laborantza ureztatua izanez gero, ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoko betebeharra.

8.2. Ezingo da baimendu uztondoak erretzea aurreko bost urteetan haien erreketak egin den eremuetan, salbu eta erre ondoren ezarri nahi den laborantza ureztatua baldin bada, orduan aldi hori bost urtekoa izango baita.

### **9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea. Betebeharrak. Baimena**

9.1. Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzea, kontrol neurri hori hartzea gomendatzen duten arrazoi fitosanitarioak daudenean bakarrik baimenduko da.

9.2. Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko eskaera egiteko epea, erreketak eskatzen den urteko maiatzaren 1etik 31ra arte izango da. Hala ere, erre ondoren ezarri nahi den laborantza ureztatua izanez gero, eskaera egiteko epea erreketak egiten den urteko irailaren 1ean bukatuko da.

Epe horretatik kanpo, behar bezala justifikatutako kasuak bakarrik baimenduko dira.

9.3. Modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko baimen eskaerak, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari zuzendutako idazki bidez egingo dira, III. eranskinean ageri den eredu normalizatua erabiliz. Arabako Lurralde Historikoko eskualdeko nekazaritza bulegoetako edozeinetan aurkeztu beharko dira, ezertan ere eragotzi gabe urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutakoa.

9.4. Pertsona edo erakunde eskatzailea berari dagokion nekazaritza ustategien erregistroan erroldatuta egon beharko da.

9.5. Eskaerarekin batera, nekazaritza edo baso arloan gaitutako teknikari batek izenpetutako txosten bat aurkeztuko da, arrazoi fitosanitarioengatik erreketak egin beharra bermatzen duena. Txosten horretan, gainera, eremuan dauden arazo fitosanitarioak eta hartan azken hiru kanpainetan egindako tratamendu fitosanitario guztiak zehaztuko dira, produktu bakoitza erabili zen egunak eta haren izen komertziala, gai aktiboak eta erabilitako dosia adieraziz.

9.6. Nekazaritza Sailaren Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuko zerbitzu teknikoek txosten bat egingo dute, zeinean egiaztatuko baita pertsona edo erakunde eskatzaileak emandako datuak egiazkoak diren eta arrazoi fitosanitarioak badauden, gomendatzen dutenak zereal hondarrak erretzea, haren baldintzak hobetzeko bide gisa.

### **10. artikulua. Baimenak. Balioa**

10.1. Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren txostenak ezesten baditu eskatutako eremu guztietan uztondoak erretzeko arrazoi fitosanitarioak, edo ezezkoa baldin bada beste edozein arrazoi teknikorengatik, erretzeko eskaera ezetsita geratuko da, eta horren berri emango zaio pertsona edo erakunde eskatzaileari berari.

10.2. Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren txostena erabat edo partez baiezkoa izatekotan, Foru Aldundi honen Mendi Zerbitzuak, hala badagokio, baimendu egingo du hura, eta erreketak bera egiteko baldintza egokiak jakinaraziko dizkio pertsona edo erakunde eskatzaileari 2 hilabeteko epean gehienez, pertsona edo erakunde interesdunak eskaera aurkezten duen unetik.

Eskaera aurkezten den unetik epe hori igarotakoan, eskatutako dokumentazioa osaturik, emandakotzat jo ahal izango da baimena eta, horren ondorioz, gauzatu ahal izango da erreketak.

10.3. Baimen hauek baimena ematen den urteko azaroaren 1era arte izango dute balioa.

### **11. artikulua. Errekurtsoak**

Edozein motatako erreketak baimentzeko edo ukatzeko egintzak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, horri buruzko araudiaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsioa jartzeko aukera eragotzi gabe.

**12. artikulua. Erreketarako baldintza bereziak**

I. kapituluaren aurrekustean diren arau orokorrez gainera, modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzen diren kasu berezian, ondoko baldintza hauek ere bete beharko dira:

1.a) Erretzen hasi baino lehen, basozaintzari abisatu beharko zaio, finkaren titularra, udalerria, poligonoa eta lurzattia eta aurkintzaren izena adieraziz, baita harremanetan jartzeko telefonoa ere.

2.a) Gutxienez 9 metroko zabalera duen suebaki bat egin beharko da, bai erretzeko den eremuaren inguruan, bai lurzatiaren barruan dauden landarezaguneen eta egiturazko elementuen inguruan, hala nola zuhaitzak, arekak, ezpondak, etab. Suebaki horietan, ez da geratu behar sua hedatzen ahal duen landare hondakinik.

3.a) Ez da egingo erretze lanik edozein baso masatik 15 metro baino gutxiagoko distantzian, suebakia barne.

4.a) Ez da egingo erretze lanik edozein eraikinetatik 25 metro baino gutxiagoko distantzian.

5.a) Erretze lanak egin bitartean, gutxienez traktore bat eduki beharko da bertan, beharrezkoa izanez gero suebakiak egiteko tresneria egokiaz hornitua.

6.a) Erretze lanak zona arriskutsuetatik (etxe, mendi edo errepideetatik) hurbil egitekotan, ahal bada zona horien inguruetatik hasita erre beharko da, segurtasun zona bat edukitzeko.

7.a) Errepideetatik hurbil dauden soroetan uztondoak erretzea: aurretik adierazitako arauez gainera, uztondoak errepideen segurtasun bandetan erre nahi baldin badira, zirkulaziorako arriskua ahalik eta txikiena izan dadin, ondoren azaltzen den moduan jokatu da:

- Eragindako errepidearen ondo-ondoko finkan edo finketan, 9 metroko zabalera duen suebaki bat egingo da hartatik hurbilena dagoen ertzaren luzeran.

- Errepidearen ardatzarekiko perpendikularrean eta aurretik adierazitako suebakitik hasita, 50 metroko tartekin, beste suebaki batzuk egingo dira, 3 metro zabal; horien luzera, gutxienez, errepide bakoitzerako ezartzen den segurtasun bandaren zabalera adinakoa izango da.

- Banan-banan eta haizearen kontra piztuko da horrela banandutako zona bakoitza, eta ezingo da piztu horietako bat aurrekoa erabat itzalita geratzen den arte.

- Errepideen ondoko segurtasun banden zabalera honako hauek izango dira:

100 metro errepideen ardatzetik neurtuta eta horien bi alboetan, autobideetan, autobietan eta lehentasunezko intereseko sareko errepideetan.

b. 50 metro errepideen ardatzetik neurtuta eta horien bi alboetan, oinarritzko sareko errepideetan eta eskualde sareko errepideetan.

c. Toki eta auzo sareko errepideetan eta gainerako auzobideetan, suebakiak bakarrik egin beharko dira.

- Gainerako soroetan, lehen esandako distantzietatik aurrera, erre ahal izango da baldin eta haizeak ez badu kea errepide alderantz eramaten; nolana ere, erretzen hasi eta gero zirkunstantzia hori gertatzen bada, itzali egin beharko da haizearen norabidea aldatzen den arte.

8.a) Erretze lanetan gutxienez bi pertsona egon beharko dira eta gutxienez sua jotzeko bat eta bizkarreko bi itzalgailu izan beharko dituzte, horietako bakoitza 15 litroko ur edukiarekin gutxienez. Ur upela edo biltegiaren erabilerak ordeztu dezake bizkarreko itzalgailuen eskakizuna.

9.a) Erretze lana nagusi den haizearen kontra egingo da, aldapa handienaren kontra eta norabide eta zentzu bakar bati jarraituz. Halaber, suaren fronte aktiboaren luzera, ahal denaren neurrian, 200 metro baino gutxiagora mugatuko da.

10.a) Erretako zona jagoten jarraituko da sua erabat itzalita dagoen eta garririk eta txingarririk nabaritu gabe bi ordu pasatu diren arte.

## IV. KAPITULUA

Ez betetzea. Arau hausteak eta zehapenak

**13. artikulua**

Foru agindu honetan xedatutakoa edozein eratan ez betetzea edo eskabidean adierazitako datuak egiazkoak ez izatea (barne delarik erreketaren ondoren eskaera adierazi ziren laboreak ereiteko konpromisoa, modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzekotan), baimendu gabeko hondakin erreketatzat hartuko da eta, ondorioz, baldintzen gaineko araudiaren ez-betetzea iritzi ahal izango zaio, eska daitezkeen laguntzak eskuratzeari begira.

**14. artikulua**

Foru agindu honetan jasotako arauak ez badira betetzen, zehapenak ezarriko dira martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, xedatutakoaren arabera, eragotzi gabe gai honi buruz Zigor Kodeak aurreikusten dituenak aplikatzea.

**15. artikulua**

Aipatutako araudia aplikatzearen ondorioz ezartzen diren zehapenak independenteak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruz indarrean dagoen araudian jasotako baldintzak ez betetzeagatik aplikatu ahal diren laguntzen zenbatekoen murrizketekiko.

## ANEXO I

NEKAZARITZA HONDAKINAK ERRETZEKO BAIMENA\*  
SOLICITUD Y AUTORIZACIÓN DE QUEMA DE RESIDUOS AGRÍCOLAS\*

- Salbu eta lasto erreketeta eta erreketeta estentsiboak
- Excepto quemas de pajeras, quemas extensivas de residuos de cereales cultivados en régimen extensivo y resto de quemas extensivas

Eskatzailearen izen-abizenak Nombre y apellidos del o la solicitante		Emakumezkoa Mujer <input type="checkbox"/>	
		Gizonezkoa Hombre <input type="checkbox"/>	
Helbidea Dirección		NAN DNI	
Herria Localidad	P. K. C. P.	Tel.	
Posta elektronikoa Correo electrónico		Faxa Fax	

## Hondakinak erretzeari buruzko datuak / Datos de la quema

Udala Ayuntamiento	Herria Localidad	Poligono zk. Nº polígono	Lurzati zk. Nº parcela	Nekazaritzako hondakin mota Tipo de residuo agrícola	Distantzia zuhaitzi, ezponda, ibar baso edo zuhaixketara Distancia a arbolado, ribazo, soto o vegetación arbustiva

Segurtasun neurriak Medidas de seguridad	
Beste arrisku batzuk Otros riesgos	

Baimen honen indarraldia 30 egunekoa izango da, ematen denetik kontatzen hasita eta atzealdeko baldintzek mugatuta.

El plazo de validez de esta autorización es de 30 días naturales a contar desde su expedición, sujeto al condicionado de la parte posterior.

...../...../.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

...../...../.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Eskatzailea / El o la solicitante

BAIMENTZEN DU / AUTORIZA  
Basozaina / El o la guarda forestal

Datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak Nekazaritza Sailaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi horrek segurtasun neurri guztiak dauzka eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erregistroan inskribatuta dago.

Eskatutako datuak beharrezkoak dira nekazaritzako hondakinak erretzeko baimena izapidetzeko.

Nortasuna egiaztatu eta gero, eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegoetara joanda (Probintziaren plaza, 5, 01001. Gasteiz, Araba)."

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la normativa vigente en materia de Protección de Datos, le informamos que sus datos van a ser incluidos en un fichero, cuyo responsable es el Departamento de Agricultura y que cuenta con todas las medidas de seguridad y que ha sido inscrito en el Registro de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Los datos recabados son necesarios para tramitar la autorización de quema de residuos agrícolas.

Vd. podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación oposición dirigiéndose a las oficinas del Registro de la Diputación Foral de Álava (Plaza de la Provincia, 5 CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava)), previa acreditación de su identidad.



BAIMEN HONEN BALDINTZAK	CONDICIONES DE ESTA AUTORIZACIÓN
<p>Bat etorri Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 66. artikularekin eta indarrean dagoen gainerako araudi sektorialarekin, baimena ematen zaizu erreketara egiteko, ondoren adierazten diren baldintzekin, ohartaraziz hartatik sor litezkeen kalte eta galera guztien erantzulea zarela.</p> <p>1.a - Debekatuta dago baimen honetaz baliatzea haize gogorra edo hegoaldeko haizea (solano, sargoria edo Gaztela-hegoa) dagoen egunetan, edo tenperatura altua denean, baita larunbat eta jaiegunetan ere.</p> <p>2.a - Erreketa ez da hasiko egunsentia baino lehen, eta egun bereko iluntzea baino ordu bete lehenago bukatuta egon beharko da. Orokorrean, egunaren lehen orduan hasiko da erretzen. Erreferentzia bezala Institutu Geografiko Nazionalak argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofiziala hartuko da: <a href="http://astronomia.ign.es/hora-salidas-y-puestas-de-sol">http://astronomia.ign.es/hora-salidas-y-puestas-de-sol</a></p> <p>3.a - Uzta hondarrak, aihenak edo bestelako landare hondakinak lur elkorretan edo ahalik eta landare gutxien dutenetan pilatuko dira, leku bizigabeen ondoan. Piloak berezko edo landatutako landaretza dagoen lekuetatik egokiro bakartuta egongo dira, sua haietara heltzea ekiditeko.</p> <p>4.a - Erretze lanak egunaren lehen orduan hasiko dira eta, egiten diren bitartean, kontu handienaz jokatu beharko da, nahiko langile eta suteen kontrako material egokia edukita. Suaren bilakaera zaindu beharko da haren hedapena ekiditeko, eta ez da bertatik joaterik izango sua erabat itzali arte.</p> <p>5.a - Inguruetan zuhaitzirik badago, jarri beharreko arretak zorrotzagoak izango dira.</p> <p>6.a - Erretze lanak egin baino lehenago, Mendi Zerbitzuko basozainaren adostasun espresua eduki beharko da. Basozainak, ingurumen baldintzen arabera, ukatu ahal izango du bere adostasuna. Era berean, Miñoi Zerbitzuari abisatu beharko zaio, eta gomendatzen da lursailaren mugakideei ere abisatzea, funtsik gabeko alarmak ekiditeko eta lana hobeto kontrolatzeko.</p>	<p>De conformidad con el artículo 66 de la Norma Foral 11/2007 de Montes, de 26 de marzo y demás normativa sectorial en vigor, se le autoriza para realizar la quema con las condiciones que a continuación se indican, bien entendido que es Vd. responsable de cuantos daños y perjuicios puedan derivarse de la misma.</p> <p>1ª.- Queda prohibido hacer uso de este permiso en días que reinen vientos fuertes o de componente sur (solano, bochorno y castellano) o cuando la temperatura ambiente resulte elevada, así como en sábados y festivos.</p> <p>2ª.- No se iniciará la quema antes de la salida del sol y, deberá estar finalizada una hora antes del ocaso del mismo día. Con carácter general la quema se iniciará a primera hora del día. Se tomará como referencia el almanaque oficial de ortos y ocasos publicado por el Instituto Geográfico Nacional: <a href="http://astronomia.ign.es/hora-salidas-y-puestas-de-sol">http://astronomia.ign.es/hora-salidas-y-puestas-de-sol</a></p> <p>3ª.- Los restos de cosecha, sarmientos u otros residuos vegetales se acopiarán en zonas estériles o lo más desprovistas de vegetación posible, junto a lugares inertes y los acopios se aislarán convenientemente de las zonas de vegetación contigua espontánea o plantada, de tal manera que se evite la propagación del fuego a las mismas.</p> <p>4ª.- Durante la quema, que se iniciará a primera hora del día, deberán extremarse las precauciones, contando con personal suficiente y material contra incendios idóneo, vigilando la evolución del fuego para evitar su propagación, sin que pueda abandonarse el terreno hasta su total extinción.</p> <p>5ª.- Caso de existir en las proximidades zona arbolada, los cuidados que se adopten serán más rigurosos.</p> <p>6ª.- Previamente a efectuar la quema, deberá contar con la conformidad expresa del o de la Guarda Forestal del Servicio de Montes, quien en función de las condiciones ambientales podrá denegar la misma. Asimismo, deberá avisar al Servicio de Miñones y se recomienda avisar a los colindantes del predio para evitar infundadas alarmas y mejor control de la operación.</p>
<p>Mendi Zerbitzuko basozainaren telefonoa / Teléfono Guarda del Servicio de Montes: Miñoi Zerbitzuaren telefonoa / Teléfono Servicio de Miñones: 945.18.18.18</p>	

## ANEXO II

ERRETZEKO BAIMEN ESKAERA  
SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN DE QUEMA

Eskatzailearen izen-abizenak Nombre y apellidos del o la solicitante				Emakumezkoa Mujer <input type="checkbox"/>
				Gizonezkoa Hombre <input type="checkbox"/>
Helbidea Dirección				NAN DNI
Herria Localidad		P. K. C. P.		Tel.
Posta elektronikoa Correo electrónico				Faxa Fax

## Lur mota / Tipo de terreno

<input type="checkbox"/> Basoa Terreno forestal	<input type="checkbox"/> Luberriak Roturaciones	<input type="checkbox"/> Nekazaritzako lurra Terreno agrícola	<input type="checkbox"/> Beste batzuk Otros .....
--	--	--	--

## Lurzati datuak / Datos de las parcelas

1)	Poligono zk. Nº polígono		Lurzati zk. Nº parcela		2)	Poligono zk. Nº polígono		Lurzati zk. Nº parcela	
3)	Poligono zk. Nº polígono		Lurzati zk. Nº parcela		4)	Poligono zk. Nº polígono		Lurzati zk. Nº parcela	

Udala Ayuntamiento		Herria Localidad	
Dermioa(k) Término(s)			
Azalera Superficie		Luzera Longitud	

Erretzearen deskribapena Descripción de la quema	
Arrazoa Motivo	
Segurtasun neurriak Medidas de seguridad	

...../...../.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Eskatzailea / El o la solicitante

Datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak Nekazaritza Sailaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi horrek segurtasun neurri guztiak dauzka eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erregistroan inskribatuta dago. Eskatutako datuak beharrezkoak dira nekazaritzako hondakinak erretzeko baimena izapidetzeko.

Nortasuna egiaztatu eta gero, eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegoetara joanda (Probintziaren plaza, 5, 01001. Gasteiz, Araba)."

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la normativa vigente en materia de Protección de Datos, le informamos que sus datos van a ser incluidos en un fichero, cuyo responsable es el Departamento de Agricultura y que cuenta con todas las medidas de seguridad y que ha sido inscrito en el Registro de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Los datos recabados son necesarios para tramitar la autorización de quema de residuos agrícolas.

Vd. podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación oposición dirigiéndose a las oficinas del Registro de la Diputación Foral de Álava (Plaza de la Provincia, 5 CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava)), previa acreditación de su identidad.

## TXOSTENA / INFORME

Landareztara dagoen distantzia / Distancia a vegetación

Zuhaiztira A arbolado		Espeziea(k) Especie(s)	
Ezpondara, ibar basora edo zuhaixketara A ribazo, soto o vegetación arbustiva		Espeziea(k) Especie(s)	

Beste arrisku batzuk / Otros riesgos

Segurtasun neurri espezifikoak / Medidas de seguridad específicas

Oharrak / Observaciones

...../...../.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Basozaina / El o la guarda forestal

ANEXO III

MODU ESTENTSIBOAN LANDUTAKO ZEREALEN UZTA HONDARRAK ERRETZEKO ESKAERA  
SOLICITUD DE QUEMA DE RESTOS DE COSECHA DE CERALES CULTIVADOS EN RÉGIMEN  
EXTENSIVO

Eskatzailearen izen-abizenak / Datos del o la solicitante

Izen-abizenak edo sozietatearen izena Nombre y apellidos o razón social		Emakumezkoa Mujer <input type="checkbox"/>	
		Gizonezkoa Hombre <input type="checkbox"/>	
Ustiategiaren kodea Código de explotación			
Helbidea Dirección		NAN DNI	
Herria Localidad		P. K. C. P.	
		Tel.	
Posta elektronikoa Correo electrónico		Faxa Fax	

Erretzeko baimena eskatzen den SIGPAC eremuen zerrenda:

Relación de recintos SIGPAC en los que se solicita la quema:

UDALERRIA MUNICIPIO	SIGPAC ERREFERENTZIAR EFERENCIA SIGPAC	ORAINGO LABOREA CULTIVO ACTUAL	IAZKO LABOREA CULTIVO AÑO ANTERIOR	DUELA 2 URTEKO LABOREA CULTIVO HACE 2 CAMPAÑAS	HURRENGO LABOREA CULTIVO SIGUIENTE	ARRAZOIAK MOTIVOS

Oharra: ezinbestekoa da txosten teknikoa aurkeztea.

Nota: imprescindible acompañar informe técnico.

...../...../.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Eskatzailea / El o la solicitante

*Datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak Nekazaritza Sailaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi horrek segurtasun neurri guztiak dauzka eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erregistroan inskribatuta dago. Eskatutako datuak beharrezkoak dira nekazaritzako hondakinak erretzeko baimena izapidetzeko. Nortasuna egiaztatuta eta gero, eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegoetara joanda (Probintziaren plaza, 5, 01001. Gasteiz, Araba)."*

*Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la normativa vigente en materia de Protección de Datos, le informamos que sus datos van a ser incluidos en un fichero, cuyo responsable es el Departamento de Agricultura y que cuenta con todas las medidas de seguridad y que ha sido inscrito en el Registro de la Agencia Vasca de Protección de Datos. Los datos recabados son necesarios para tramitar la autorización de quema de residuos agrícolas. Vd. podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación oposición dirigiéndose a las oficinas del Registro de la Diputación Foral de Álava (Plaza de la Provincia, 5 CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava)), previa acreditación de su identidad.*